

NON KABITU KULTURA

Gobernu Zibilaren eraikin ohia Amarako kultur etxe izan dadin borrokan ari dira auzotarrak

 **JENDARTEA** / Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Gobernu Zibila Kultur Etxe plataformako kideen iritziz, Donostiako Amara auzoan dagoen Ernest Lluch kultur etxeak ez ditu auzotarren behar kulturalak asetzen. Horregatik, «auzogintza» eginez eta instituzioekin borrokan, Pio XII.a plazan dagoen Espainiako Gobernu Ordezkariordeztza kulturaren etxe bihurtzeko lanean ari dira.

Padura zen Donostiako Amara auzoa duela mende eskas bat, Uru-mea ibaiak, harrizko zubiren batek eta baserri banaka batzuek soilik jantzia. Donostiarrek Loiolako Erribera izenez

ezagutzen zuten lursail hori trenbidearen eraikuntzak zati-tu zuen 1864an, eta Santiagoko Erriberak sortu ziren, ondolan izen berbera zuen baserriarengatik horrela izendatuak. Egun, Katalin Erauso kalea dago lehen ibaiaren bokaleari zegokion inguruetan.

GZKE taldeak antolatutako festa bateko irudia, korua kantuan ari dela. GZKE

1870eko hamarkadan, Amara izeneko baserrirantz zabal-tzen eta handitzen hasi zen Gipuzkoako hiriburua, eta beranduago Amarako Zabalgu-nea deituko zioten hiri izaera hartzen ari zen eremu horri. 1950eko hamarkadan, Amara edo Amara Berriko Zabalgu-nea bilakatu zen azkenik Mendurrenaren plazaren eta Ano-etaren arteko zatia, antzinako padura eta bertako baserri eta harrizko zubiak atzean utzita.

Urte haietan, donostiarrek ikusi zuten eraikin ugari altxatzen hasi zirela, Europako hiri handietako tankerakoak horietako asko. Eta Pio XII.aren plazaren erdian, 1955ean, Pedro Bidagor eta Luis de Villanueva arkitektoek diseinatutako Gobernu Zibila-



ren eraikinaren lanak amaituak ziren, egun Espainiako Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztzari dagokion etxearenak.

Azkar aldatu eta hazi den auzoa da Amara. Amara Berri ez da jada berri-berria, futbolzaleek Anoeta dute orain aterpe eta 30.000 pertsona baino gehiago bizi dira bertan. Donostiako auzo handiena da. Orain 40 urte, Jack Nicholson protagonista duen “Alguien voló sobre el nido del cuco” film arrakastatsua bigarren bez bota zuten Rex-Avenida zinemaren. Horrez gain, Astoria eta Bellas Artes zinemak zituen Amarak.

Gaur egun, ez dago zinema aretorik auzoan.

UNIFORME MARROIA, ARIMA GRISA

Kolorez ez ezik, arimaz grisa iruditzen zitzaizkien zenbait amatarrei Gobernu Zibilaren eraikina. Uniforme marroia ibiltzen ziren hara-hona, *boina* janzten zuten eta umore txarra zuten zaindaria egoten zen kanpoan, eta arrano frankista barruan.

Orain Espainiako Gobernuaren Ordezkariordeztzaren egoitzak administrazio publikoko zerbitzu batzuk eskaintzen ditu, hala nola, Babes Zibilari, Nekazaritza eta Arrantzari edo Lan eta Immigrazioari dagozkienak.

Lau pisu, gela handiak, fatxada dotorea eta 7.000 metro karratu inguru dituen eraikin honek dantzan jarri du asfaltetik auzotarren imajinarioa, horrelako eraikin batek beste erabilera bat izan beharko lukeela iritzita. Batzuek musika kontserbatorio baten egoitza izan daitekeela uste dute, norbaitek zinema areto bat ere irudikatu du bertan, liburutegia besteren batek. Baina,

gehienek hori guztia jasoko lukeen kultur etxe bat amesten dute Gobernu Zibilaren eraikina zen horretan.

Auzotarren aspaldiko nahi horri erantzuteko sortu zen 2018an Gobernu Zibila Kultur Etxe (GZKE) plataforma. Auzo elkarteetako jendeak eta oro har Amaran kulturari eskaini-

tako azpiegiturak pobreegiak direla uste duten herritarrek osatu zuten taldea, izenak berak dioen bezala, Pio XII.aren plazan kultur etxe bat bultzatzea helburu duena.

Haatik, Amarak badauka Ernest Lluch kultur etxea, Anoeta estadioaren behealdean kokatua. Baina Ernest Lluchek

Espainiako Gobernuaren Ordezkariordeztzak administrazio publikoko zerbitzuak eskaintzen ditu; Babes Zibila, Nekazaritza eta Arrantza edo Lan eta Immigrazioa sailetakoak, adibidez.

Amarak 30.000 biztanle ditu eta, horietatik, 17.000 dira Donostia Kulturako bazkide. Hortaz, Donostiako auzorik handiena da eta kultur-etxeetako erabiltzaile gehien dituen.

Gobernu Zibilaren eraikina, Donostiako Amara auzoan.
Gorka RUBIO | FOKU

eskaintzen duena ez da nahikoa, GZKEko kideen aburuz, auzotarren kultur eskaria asetzeko eta, gainera, bertako baldintzak ez dira onenak. «Amarak 30.000 biztanle ditu. Horietatik 17.000 dira Donostia Kulturako bazkide. Horrek esan nahi du hiriko auzorik handiena garena eta kultur etxeetako erabiltzaileen aldetik ere zabalenak garena», esan du Xabier Otaegi GZKE plataformako kideak.

Datu horiek kontuan izanda, «lotsagarri» deritze Ernest Lluchek dituen baldintza kaskei: «Liburutegia du, bai, baina ezer gutxi gehiago. Futbol zelai bati itsatsita dago, han ez dago deus egiterik, zarrata izugarria da», kexatu da. Berarekin batera agertu dira





GAUR8ko hitzordura Marian Zarraonandia eta Xabier Berri-di, GZKEkoak hauek ere, plata-forman egiten duten lanaren berri ematera.

Ernest Lluch kultur etxeak ez dauka, oraingoz, haur eta gazteentzako zerbitzurik. Hori-ek «barrakoietan» daude, Otaegik dioenez, Olaeta pla-zan jarritako behin-behineko etxetxo batzuetan.

Anoeta futbol zelaian obrak hasi zirenean eratu zen GZKE taldea, lanek iraun bitartean itxita egon baitzen Ernest Lluch. «Momentu horretan, aukera geneukan zerbait dife-rentea egiteko», agertu du Xa-bier Berridik.

Hala, kultur etxe «diferen-tea» nahi dutela argi dute. «Gi-zarte etxe bat nahi dugu. Do-nostia Kulturak dituen kultur etxe denek antzeko itxura du-te: liburutegi bat, KZ gunea, mediateka/fonoteka eta ho-rien inguruan antolatzen di-ren ikastaroak; nahi baduzu

erosten dituzu eta nahi ez ba-duzu ez. Hori kontsumoa da, kultur denda bat dirudi. Guk ekintzaileentzako espazio bat nahi dugu, adin ezberdinetako jendea bilduko duena, ez orain bezala, soilik adineko jendea joaten dela, eta gehienbat emakumeak. Horrek gizartea zatitzen du, eta guk gizarte ba-teratzaile bat nahi dugu», pro-posatu du Marian Zarraonan-diak.

Gobernu Zibilaren eraikinari izugarrizko potentziala ikus-ten diote honi kultur etxe iza-

era ematearen alde daudenek. Lau pisu, areto handiak, ama-ratarren kultur habia izateko egokia. Aurrean, gainera, par-kea, kulturarako sarrera ber-dea, hau ere eszenaren parte, kale-kultura egiteko aproposa.

IMAJINATZEN?

Hala, GZKE plataformak auzo-tarren aktibazioa edo «auzo-gintza» bilatu du bere aldarria sendotu eta ondotik institu-zioetara eramateko. Egin du-ten ekintzarik «garrantzitsue-na» sinadura bilketa izan zela

GZKE plataformak Amara-
ren sorrerari buruzko argazki erakusketa bat jarri zuen auzoan antolatu zituzten festetan.
GZKE

Kultur etxe «diferente» bat nahi dute GZKEko kideek, «gizarte etxe» bat, «ekintzaileentzako espazio bat» izango dena eta adin ezberdinetako jendea bilduko duena.

Gobernu Zibila Kultur Etxe plataformak hainbat ekintza egin ditu, besteak beste, sinadura bilketa bat (1.700 sinadura lortuta), bi festa auzoan eta liburu baten argitalpena.

diote; soilik auzotarren artean, 1.700 atxikimendu lortu zituz-ten. Bestalde, bi festa erreibin-dikatibo ere egin dituzte Ama-rako Aitzol plazan, bata 2018an eta bestea iaz.

Horietan denetarik antolatu zuten: hitzaldiak, liburu-
en do-ako banaketa, koruak, bertso-saioak, erakusketak, kontzer-tuak, eta gehiago. «Erakutsi nahi genuen kalean egin geni-tuen gauza horiek denak posi-ble dela kultur etxe barruan egitea», azaldu du Otaegik.

GZKE plataformak abiatu duen ekimen berriena, aldiz, liburu baten argitalpena izan da. Abenduan aurkeztu zuten “Gobernu Zibila Kultur Etxe” liburuak Amarako 30 bizila-gun baino gehiagoren sorkun-tzak bildu ditu, denak ekime-naren aldeko mezuekin. Adibide batzuk jartzearen, Sa-ra Beiztegi artistak ilustrazio bat egin du, Iban Zaldia idaz-leak umetako kontakizun bat idatzi du eta, besteak beste, Pa-co Etxeberria forentsearen, Miren Apalategi filosofia ira-kaslearen, Inaxio Kortabarria futbolari ohiaren, Elixabete Garmendia kazetariaren, Ra-mon Irizar pailazoaren eta Ur-ko musikariaren sinadurak agertzen dira.

Azken honek dio: «Imajina-tzen al duzue futbol zelai bat antzoki baten azpian? Eta fut-bol zelaiaren harmailak libu-rutegi bati itsasiak? Eta futbo-larien aldagelak haur-txoko baten gainean? Ez noski. Fut-bol zelaia futbol zelai eta kul-tur etxeak kultur etxe. Gober-nu Zibilaren eraikina, Amarako kultur etxe».

Plataformako kideek abisatu dute liburu ez dela merkatu-ratuko, pertsona eta entitate interesatuei eskura ematen ari dira, besteak beste, liburuan parte hartu dutenei «esker ona

adierazteko». Hala ere, beraiei zuzenean eskatuta lor daiteke.

DROGAREN BUNKERRA

Auzotarren aktibazioa aise lortu du GZKE elkarteak, baina Pio XII.eko eraikina kultur etxe bilaka dadin instituzioetan egin beharreko bidea kalekoa baino geldoagoa da. Eraikinaren jabetza Gobernu espainolarena izateak prozesua zailtzen duela ziurtatu dute elkarteak kideek.

2017an Poliziak Gobernu Zibilaren eraikina utzi zuenean, ia hutsik geratu zen, eta administrazio zentralak zenbait zerbitzu publiko jarri zituen bertan, ez zerbitzuak «erdiratzeko», Xabier Otaegiren ustez, baizik «hutsik zegoen eraikin horri zentzu bat emateko».

Madrilgo Gobernuan PP agintean zegoenean, Guillermo Echenique Gipuzkoako ordezkariarekin harremanetan jarri ziren plataformako kideak eta, diotenez, hark ez zuen gaizki ikusten zerbitzu publikoak Estatuak Donostian dituen beste bulego batzuetara mugitzea, Gobernu Zibila hutsuz eta hau kultur etxe bilakatzeko aukerak zabalduz. «Echeniquek esaten zuen bera funtzionario bat zela, eta auzoak hori eskatzen bazuen, aurrera egiteko», zehaztu du Zarraonandiak.

Donostiako Udaleko talde guztiak, orobat, ados dira proiektuarekin, nahiz eta Espainiako Gobernuak duen azken erabakia. «Alkatea [Eneko Goia] erabat ados dago. EAJk azkenengo hauteskundeetan programan aldarrikatzen zuen Gobernu Zibila Kultur Etxe bihurtzea», dio Otaegik.

Antzeko jarrera izan zuen Donostiako PSEk ere, harik eta PSOE Madrilgo Gobernura iritsi den arte. «PSOE da 'bai, bai-

Donostiako Udaleko talde guztiak ados dira Gobernu Zibilean kultur etxe bat sortzearekin. Hala ere, Espainiako Gobernuak du azken erabakia, eta PSOEek ez du erraztasunik jartzen.

Aurten, EHUko Arkitekturako Gradu-ko 5. mailako ikasleei proposatuko diete Gobernu Zibilaren eraikinean kultur etxe bat diseinatzea, proiektu modura.

Xabier Berridi, Marian Zarraonandia eta Xabier Otaegi, GZKE plataformako kideak.
Juan Carlos RUIZ | FOKU



na' esaten digun talde bakarra», esan dute.

Donostiako Udaleko PSEko ordezkariak proiektua oztopen jarritako «aitzakia» kurioa kontatu du Xabier Berridik: «Drogaren bunkerra omen dago eraikinaren barruan. Lehen, Espainia iparraldeko droga guztiak hor gordezten zirela esan zuen publikoki, auzo elkartearen aurrean, Ernesto Gascok». Noski, droga egon daitekeen eraikin batean kultur etxea sortzea bateraezina dela esan zuten PSEkoek.

Bestalde, Otaegik esan duenez, «PSOEek erabiltzen duen beste aitzakia bat da hor dagoela Tabakalera. Eta, egia da, baina hori ez da nahi duguna. Zergatik? Auzo batean bizi garelako. Ernest Lluch-en haur txokoa zegoenean erabiltzen zen, orain, nahiz eta barrakoietan egon, erabilera handiagoa du. Gertutasunagatik!»

Alta, GZKE plataformak badu ekintza gehiago egiteko asmoa. Besteak beste, aurten, EHUko Arkitekturako Gradu-ko 5. mailako ikasleei proposatuko diete Gobernu Zibilaren eraikinean kultur etxe bat diseinatzea, proiektu modura.

Hala ere, jakitun dira beraien borroka ez dutela berehalakoan irabaziko. «Badakigu honen irtenbidea ez dela etziko, ezta etzidamukoa ere, baina lortuko dugu. Ziur nago noizbait Gobernu Zibilaren eraikina kultur etxe bihurtuko dela, baina noiz? Ez dakigu. Nortzuk diren hori lortu beharko dutenak? Onerako edo txarrerako, politikariak. Guk, bitartean, matraka emango dugu», agertu du Xabier Otaegik. Matraka, Amarako eskaintza eta eskari kulturala nonbait kabitut dadin.